

## HITZAURRE

Zuhaitzak ez du basoa ikusten uzten.

Berriak illaran, alkarrekiko loturarik gabe, banaka baizik ikusten ez baditugu, hori bera gerta dakiguke guri ere Euskal Herria'ri buruz : pasadizuak kondaira illuntzea. Gaur bertan gertatzen ari ote zaigun gaude. Teoriak ozenki aipatzen dira batetik, eta hitzak goratik baiña modu desberdiñetara erabiltzen. Hauek azterketa hotzari nagusitu zaizkio. Egintza-mordoak hausnartuz aurkitu behar ziran legeen orde, esaera harroputz eta hanpurusak mintzo dira. Eta gaztedia, betiko leloak bederen ez berriz ere entzunik, lilluraturik gelditu da.

Horrelako itsualdietan on izaten da oso, neurri xuxen baten beharrez, ingurura arretaz begiratzea ; inguruko gertaerak eta gorabeherak garbikiago epaitzen baititugu eskuarki etxe-barnekoak baiño. Aisago erreparatzen dugu txotxa lagunaren begian, habea geurean baiño.

Nazio dan aldetik, Euskal Herria'ren eskubidea, alegia, geure burua gobernatzeko dugun eskubidea, sekulan baiño usuago onartzen da gaur, bai euskaldunen eta bai erdaldunen artean.

Euskal Herrian, hasteko, ia ahobatez, „región” eta „autonomie” hitzez baliaturik, baita abertzaletasunaren etsairik porrokatuenak ere, euskaldunon nazio-eskubideak gero eta ausarkiago ari dira haizatzen ; eta hau baita frankisten eta gaullisten beren aldizkarietan. Adibide bakar bat eman nahian, azken „Montejurra”ren iritzi batzuk kopiatuko ditugu (ikus 1966-eko Iraillaren zenbakia). Letra haunditan hau irakur diteke : „Si ya hoy administrativamente no se discute en el mundo la conveniencia de las autonomías regionales, y a ellas se vuelve en todos los países, más elevados motivos de justicia y libertad lo exigen además en España”. Ia hau bezin garbiki mintzatu dira Hegoaldeko kaseta guziak azken bolada huntan : eta Iparraldean ere, baita euskaldun deputatu-gai gaullistek berek, bozen billa, Euskal Herriaren eskubideak gaingiroki bederen aipatzen dituzte.

Erdal Herrian, bigarrenik, eta España'n eta Frantzia'n bereziki, „federalismo”, „autodeterminación” eta „décentralisation” hitzak erabiliz, gure nazio-eskubideen zuzena, era batzutara ikas diteke ; eta hau ia politika-joera guzietan : komunista txinazaleen kasetetatik has, eta eskuindarren beren kasetetaraiño. Etsenplu bakar bat emateko, Frantzia'ko txinazaleak, beren „Manifeste” berrian (ikus „L'Humanité Nouvelle”, 1966-eko Uztailla, 9.5 puntua) hunela mintzatu dira : „La

défense de l'indépendance nationale est un des points de notre programme, qui peut unir dans l'action la classe ouvrière avec d'autres couches sociales... L'expérience du mouvement communiste international (guerre anti-japonaise du peuple chinois, grande guerre patriotique du peuple soviétique, lutte armée anti-nazie en Albanie, en France comme dans tout le reste de l'Europe), atteste l'importance, pour la conquête de la direction des masses, de la prise en charge des véritables intérêts de la nation par le prolétariat, et la nécessité d'unir la lutte de classe avec les aspirations patriotiques populaires, qui n'ont rien à voir avec le chauvinisme et le nationalisme... (il faut combattre) „l'erreur qui consiste à séparer la lutte de classe de la lutte patriotique, et à sous-estimer la défense de l'indépendance nationale”.

Euskal Herriaren muiña eta habe nagusia, bestalde, euskera dala, inoiz baino nabarmenago agertzen da gaur, euskaldunen eta erdaldunen artean berriz ere. Hizkuntza eta nazioa alkarri datxezko.

BRANKA'n bertan aipatu ditugu (ikus lehenengo bi zenbakiak) gaur Hizkuntzalaritzak eta Soziologiak hizkuntzan ikusten duten inportantziaren funtsa. Lönnrot eta Ben Yehuda'ren jokabide suharrek oiñarri zindoak aurkitu dituzte gaur Finlandia'n eta Israel'en, noski, baiña baita Saussure'rengan eta Levi Strauss'engan.

Huntaz ohartu gera euskaldunok ere ; eta abertzaletasunak soziologian finkatu nahi ditu gaur oiñarriak, eta ez folkloean. Euzkadi, berriz ere, Euskal Herriaren zerbitzuko nahi dugu ; gure nazioa Euskal Herria dalako, eta gure aberkideak euskaldunak. Haurrentzako eskolen ugaltzeak, (1) Apezpikuen aginduz apezgaiek euskeraz jakin behar hertsia, euskal literaturaren pizteak, euskal irratsaioen eta ikaskai-saioen arraskasta haundiak (egun labur batzutan Peña'ren ikaspideak Bilbo'n aittuta, esate baterako), euskal teatroaren indar berriak, denek, euskaltzaletasunaren sustatzea eta gogortzea agerian uzten dute. Hegoaldeko Diputazioak, herriak bultzaturik, ofizialki España'ko aginteari eskolak eskatzen abiatu zaizkigu.

Euskaldun karlistak berak bide beretatik sartu dira, eta Uruñuela'k garbi esan du berriki, Bilbo'ko karlisten billeran : „Algunos, bastantes, correligionarios de fuera, se me han escandalizado al ver en

(1) ikus, esate baterako, „Atarpe”k berriki Azaroaren 20-eko Z. Argian : Urretxu'ko herrian, „Batetik ikastola, iru urtetik seira bitarteko LAROGETA AMAR umetxori euskeraz irakasten ; bestetik, gau-ikastaldietan, EUNDA IRUROGEI neska ta mutil”.

parte de la pequeña propaganda que se ha realizado de este acto, que se ha realizado en nuestra lengua éuskara. Yo, que soy vasco, una de las cosas que más siento, es no conocer mi propio idioma. Y si somos vascos, debemos exigir el respeto a nuestra lengua, el respeto a nuestras libertades, el respeto a nuestros Fueros... (Dijo) que era muy importante y necesaria para el bien de España la creación de una Universidad Vasca. Estamos de completo acuerdo. Desde aquí, desde Begoña, quiero sumarme en nombre de todos vosotros, de todos los carlistas vascos, a esta estupenda y justa aspiración ! Qué extraordinario también sería conseguir que en el País Vasco sea obligatoria la primera enseñanza bilingüe !". Eta, amaitzeko, hau ere oihukatu zuen : „Gora Euskal Herria !”.

Ahuñamendi'z iparraldera euskaltzale joera berbera nabaitzen da. Baiona'ko „Herria”k (ikus 1966-eko Azaroaren 10-eko zenbakia) berriki ezagutarazi duen xehetasun bakar bat gogoraztea besterik ez dago : „Duela hamabortz bat egun, huna hitzez hitz zer esan duen Paue'ko Unibersidadeko Sekretario batek Ikasle Euskaldun bati bere izenaren emaiterat heldu zelarik eskuararen ikasteko : „Mais qu'est-ce qui vous prend cette année ? Ça fait la vingtième demande qu'on me fait pour cette spécialité qui n'existe pas” (Paue'n ez baita oraino eskuararen erakaslerik) ... jakin degu ere Bordale'ko ikasle askok beren izena eman dutela (egun hautan baita urthe haste guziz izenen emaita hori)”.

Euskalduntasunari gagozkiola, hori da giroa, hitz gutxitan, 1966-eko bukaera huntan. Euskal Herria zutitu egin dala ageri da, bere buruaz nagusitu nahi duela ; eta askatasun horri nazio-jakintza bat eman nahi diola oiñarri. Gure etsaiek nekez agortuko dute abertzaletasunezko uxol oparo hau. Baiña saiatzea erabaki dute berriz ere. Hori dala-ta, bi pozoin sakabanatu dituzte gure artean : Iparraldean Europa-zalekeria (beste batean xehekiago aztertuko), eta Hegoaldean „ezkerkeria” (eskuin aldetik abertzaletasuna irteerarik gabe ikusita, nunbait).

Euskal pizkunde giro pozgarri hortan (Hegoaldean frankismoaren akaberaren susmoak biziagotua), pazi-soiñu kaskar batzuk hasi dira entzuten. Nork egiñak ? Gure arteko sasi-ezkertar batzuk, „sozialismo” aren aitzekian, batzutan atzerritar eta erdaltzale partidu ezagunetatik ari, eta bestetan euskaldun eta euskaltzaleetatik beretatik (ezin siñetsia izanagatik ere !). Español chauvinismoa, hortara, ardi-larruz estalirik, artaldean sartu zaigu ; eta pozoiña ixuri nahi bizian.

Abertzaletasunari tenk-eragin nahi amorratu hortan, gure herria

inperialismoaren menpean atxikitzeko, zer asmatu dute gure sasi-ezkertar eta sasi-„euzkotar” horiek? Azter ditzagun bere esanak.

Euskal Herriaren nazio-eskubideak nun-nahi onartzen hasi diralarik, gure sasi-ezkertarrek, España'ren morroi zintzo, gure nazio-eskubide horien kontrako lan oso bat egiten hasi dira. Lan oso eta sakon hau bi maillatan obratzen dute.

Batetik, gure nazio-eskubideak ideien maillan ukatuz edo maltzurki zalantzan jarriz. Abertzale gazteen artean hauek zabaldu dituzte, erantzun „hotzak” emateko eskatuz bidenabar: „Puede haber liberación nacional sin necesidad de un Estado Vasco?... Se puede hacer la Revolución Socialista en Euzkadi al margen del Estado español o francés?... Zazpiak-Bat es un absoluto?... Desde un punto de vista obrero, es necesaria la existencia de un Estado para cada nación?... Hay un territorio vasco?”. Edo-ta hunela erantzunez: „Euzkadi-Sur es dos Euzkadis. Una Guipúzcoa-Vizcaya, la otra Alava-Navarra... No se pueden deducir conclusiones globales absolutas para Euzkadi-Sur... Euzkadi-Sur es una realidad objetiva y subjetivamente bi-nacional ... Hay que superar el nacionalismo” ...

Gure nazio-eskubideak sekulan obra ez ditezen, ekintza-maillan ere abilki jokatzearabaki dute, gure Euzkadi'ko erresumaren etorrera eziña egiñez: „Ante estas dos posibles unidades — unidad de clase y unidad de 'los vascos' — es necesario adoptar una posición coherente con nuestra condición de socialistas revolucionarios. Trataremos de explicar la nuestra brevemente... Otros piensan que cuando una nación carece de gobierno propio toda „resistencia nacional” es objetivamente revolucionaria... Lo que nosotros no haremos nunca es eludir unos claros planteamientos de clase para ganar unos cuantos votos burgueses. Si hoy no hay unidad entre los vascos no es culpa nuestra; nosotros no hemos creado esa sociedad dividida en clases. Los que buscan honestamente esa MISTICA unidad nacional...” (Batasun „mistiko” hori mundu guzian lortu da atzerritarren kontra !!!)... „Desde este prisma no resultará fácil comprender que un socialista consciente condene toda postura que tienda a unir, o a incorporar, a la clase trabajadora en los proyectos democrático-burgueses del capital monopolista”... Euskal Herriaren nazio-askatasuna, noski, „burguesia” ren nahietatik bat omen da. Baiña euskal burguesia nagusi baldin bada gaur, eta nazio-askatasun hori bere asmo bat baldin bada, nola ez du dagoeneko lortu? Mao-Tse Tung'ek atzerritarren kontra bat egin zuen

ezkero, eskuindar ote zaie Mao bera gure txarranpin-gorri ikaragarri hauei ?

Edozertan, hitz batez, gure nazio-burrukari ahaztu-itxura egiñez, abertzaletasuna erauzi egin nahi dute gure herritik, Falanjea'k bezelaxe, España'ko burgesiak bezelaxe, zanpatzailleen poliziak bezelaxe. Askatasunerako bide bakarra abertzale batasuna dala jakin arren (sasi-ezkertar horiek guk bezin ongi dakite Euzkadi'ko erresumarako bide bakarra horixe dala), abertzale-batasun horren kontra ari dira, jo-ta-ke. Zergatik ? Noren zerbitzutan ? Noren kaltetan ? Irakurleak erantzun beza.

Beste alde batetik ere, Euskal Herriaren nazio-etorkizunerako hizkuntzak duen pisua kanpokoek eta barnekoek onartu duten mementuan, gure sasi-sozialistek ukatu egiten dute. Eta hau diote : „La lengua es una parte de las superestructuras burguesas... La valoración del euskera es un resto de nacionalismo burgués... Hay que combatir toda explicación esencialista del problema del euskera”. Edo ondoko hauek : „Existe una cultura vasca?... Deberán dejar de ser españoles los trabajadores inmigrantes?”. Edo beste hauek zinki baiesten : „El pueblo vasco no siente opresión lingüística... El euskera es objetivamente un freno en la lucha, pues ya solo es lengua de un ínfimo grupo de atrasados, totalmente despreciable”.

Nork ekarri du erdera Euskal Herrira ? Ola-gizonek, baserritarrek eta arrantzaleek ? Ala españar eta fraitziar armadek, kolonialismo-gintzan Europa'n bertan ere, eginkizun hortan bertako burgesiaran saldukeriak lagundurik ? Nork debekatu ditu euskal eskolak, euskal aldizkariak, eta euskal Unibertsidadea : euskaldun herriak ala Paris'ko eta Madrille'ko aginteek ? Nork galdu du gerra 1937-an, españar inperialistek ala guk abertzaleok ? Nork bortxatu ditu gure haurrak erderara, eraztun lotsagarri haien bidez : euskaldun langilleek ala erdaldun jeneralek ? Nork kendu dizkie XIX-garren mendean nafar soldaduei hiri-eskubideak, erderaz nagusitu artean ? Nork puskatu ditu euskal hillarriak berak ? Nork egin du azkenik jenojidioa Euskal Herrian : gure herri xeheak, ala España'ko eta Fraitzia'ko gobernuek ? Eta, hau guzia hunela izanik, nork esan dezake prestuki gure herriari hau guzia bost axola zaiola ? Eta 1833-tikako hildako eta deserritutako euskadun guziak, zer ? Sasi-ezkertar horiek españazale porrokatuak izatea, guri zer ? Nork afusillatu zituen Lauaxeta, Ariztimuño, eta beste anitz euskaltzale ? Gure langilleek ala Madrille'ko

armadak ? Nork esan dezake oraindik Arrese-Beitia, Manterola, Oloriz, eta abar, ezagututa, Franco'k (España'k hobe) afusillatutakoak abertzaletasunaren hildo luzean gertatzen ez diranik ?

Gure sasi-ezkertar horiek eta kanpoko inperialistek, bat egiñik, gure hizkuntza mespretxatzen dute. Baiña beste inork ez. Eta hunek, beren arrozkeriak alegia, galdu egingo ditu .Zeren-eta, nork sortu du, eskolaren barrenean eta eskolatik at, gure hizkuntzarekiko arbuioa ? Nork egin du arlote eta ezteusa ? Nork sortu ditu gaurko erreflejoak ? Guk euskaldunok, gure herri xehe gizajoak, gure baserritarrek eta ikazkiñek ; ala españar eta fraintziar agintariak ? Burgesek gaur, bai ; baiña lechen zer ? Nola esan diteke euskaldunekiko gorrotoa klase-arazoa danik, burgesiaren kakoa, orain dala bostehun urte ere gorroto berbera nabarmen dalarik ?

Sasi-ezkertar horien ideiak España'ren inperialismoaren ideiak baizik ez dira. Otsoak otsoari gaitzik ez, dio gure atsotitz zaharrak. Egoki esana : sasi-ezkertarrak lasai ari dira bere lana egiten herriz herri eta nola-nahi. Ezkertar nabarmen agertuagatik ere, eta gaurko españar agintea eskuindar hutsa izan arren, lasai ! Adiskideak eta etsaiak ondikotz gure etsaiak guk baiño hobeki ezagutzen baitituzte.

Abertzaletasun „hutsa” ren kontra beren esanez abiaturik, sozialismo „huts”era heldu nahi bide dute. Eta, bai bata eta bai bestea, inperialismoak asmatutako ipuiñak dira, biak osoki kaltegarri eta biak Euskal Herriaren etsai.

Nola hau guzia lortuko ?

Apurketa-lan hori egiteko, sasi-marxismo batez baliatzen dira hainak, eta alienazioen eta superrestrukturen teoriak españar inperialismoaren aldera nola edo ala moldaturik, eta sozialismoa arras lardazkaturik, gure abertzaletasuna eta gure euskaltzaletasuna, biak batera, koloka uzten saiatzen dira. Bidenabar, noski, sozialismoa bera herriari gorrotagarri aurkeztuz...

Denbora berean, españar inperialismoa inñolaz ere aipatu gabe, „absolutu” berrien billa bidali nahi gaituzte gu, euskaldun „chauvinistok”, gure herriaren politika, langilleen klase-batasuna dala-ta, españazaleen eta traidoreen eskuetan utziz ; nunbait gu abertzaleok metafisika-gintzan murgilduta ikusteko itxaropenean. „Zer gera lehenengo, euskaldun ala gizon ?”. Horra hor guretzako maite dituzten igarkizunak !

Ez diegu atsegin hori emango.

Gure etsaia ez da gaur „sistema” bat, atzerritar inperialismoa baizik.

„Sistema” baten kontra jokatu ahal zuten poloniarrek, ala Errusia’ren kontra eta Polonia’ren askatasunaren alde ? Maximo Gómez, Rizal, De Valera, Gandhi, Ben Gurion, Burgiba, Ben Bella, Grivas, Mao Tse Tung, Ho Chi Minh, zanpatzaille ziran erresumetako „sistemen” kontra burukatu ziran, nazio-askatasunerako bidean ? Ala Cuba’z, Filipina’z, Irlanda’z, India’z, Israel’ez, Tunizia’z, Arjelia’z, Txipre’z, Txina’z eta Viet Nam’ez ? Ben Bella, Arjelia’n Borgeaud eta „harki” asko izanagatik ere, Fraitzia’ren kontra altxa zan, ez „sistema”ren kontra Fraitzia’ren barruan ; eta „Gora Arjelia” esateko ez zan bildur. Era berean gu ere ez gera gure abertzaletasuna erakusteko bildur, eta Euskal Herriaren askatasuna oihukatzen dugu, BRANKA-n eta edonun ; eta España’k eta Fraitzia’k zanpatzen gaituztela (eta ez „sistema” batek soilik) argi eta garbi jakiñaratzen dugu. Berdin diogu ere guretzako ez dagoela ez sozialismorik eta ez fitsik atzerriko administrazio arrotz eta etsai baten menpean gaudeño, ots, Euzkadi’ko erresuma askatua egin arteño.

Erresuma libroaren lehenengo eginkizuna (nazio-eginkizunei gagozkiela), Malasia’n, Viet Nam’en, Finlandia’n, Israel’en, eta edonun, nazioari soziologiazko trinkotasuna eta herritasuna ematea izan da ; eta hortarako, lehenengo urrats gisa, nazio-jakintza eta nazio-hizkuntza arras nagusiaraztea eta finkatzea izan da leku guzietan. Hori bera egingo dugu guk Euzkadi’n.

Sozialismoa nahi dugu : lehenagokoetan ere hauxe esan genuen, eta gaur berriz gauza bera diogu. Sozialismo egiazko bat ekartzen saiatuko gera gure indar guzietan ; eta gaur bertan ere, BRANKA-ren horrialdeetan, sozialismoari buruzko ideiak aztertzen saiatzen gera. Baiña sozialismoa egiazki nahi dugulako, hain zuzen, atzeritarren menpekotasuna desegin nahi dugu aurrenik ; eta hau gure herriaren nahia eza gutzen dugulako, eta ez gutxiago inperialistena... Eginkizun eskerga huntan abertzale guzietan egiten diegu dei, berriz ere, Abertzale-Batasun bat sor dedin.

Sozialismoa eta jenojidioa alkartu eziñak dira. Orobat euskal sozialismoa eta erdal inperialismoa. Euskaldunok Euzkadi Sozialista eta Euskalduna nahi eta behar dugu.

Helburu bikoitz hori dugu gidari.

Branka’k.